



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2020eko EKAINAREN 16EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2020/06/16

Ordua:20:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Jaione Olano Etxeberria .Alkatea
Josu Ozaita Azpiroz . Zinegotzia
Maribi Garmendia Oyarbide .Zinegotzia
Juan Mari Iturrioz Goñi .Zinegotzia
Andoni Olano Manzano .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDAA

- 1.-2020-05-19 bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2.-2020-15-16-17-18 dekretuen berri ematea .
- 3.-Bostaitzetako bidearen aurrekontua aztertu eta dagokiona erabakitzea .
- 4.-Lopetedi partzelako Horma egitearen aurrekontua aztertu eta dagokiona erabaki .
- 5.-Osasun saileko diru laguntza deialdiaren berri eman eta proiektua onartzea .
- 6.-Ostatu eta elkarteko hondakin organikoa tratatzeko txerrien berri azaltzea.
- 7.-COVID 19 dela eta udalak utzitako gazte lokalaren erabilera zuzena egiteko arauak aztertzea , hala balegokio .
- 8.-Galtzaundi euskara taldearen diru laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 9.-San Juan suaren inguruan bete beharreko neurriak aztertzea.
- 10.-Galderak eta eskaerak .

1.-2020EKO MAIATZAREN 19KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA , HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2020-05-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2.-2020-15-16-17-18 DEKRETUEN BERRI EMATEA .

Alkateak honako dekretuak eman dituela jakitera eman da :

2020-15: Yoga ikastaroko laguntzak

2020-16: Yoga ikastaroko laguntzak.

2020-17: Pilates ikastaroko laguntzak

2020-18. 2020eko zabor errolda onartzea

Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira .

3.-BOSTAITZETAKO BIDEAREN AURREKONTUA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Bostaitzetako bidearen zoladura dela eta Juan Marik Anduitz enpresari zoladura berritzeko aurrekontua eskatu zion .

Aurkeztutako aurrekontua , beza barne 8.518,40 eurotakoa da .

Gai honen inguruan jakin da , gutxienez bi baso jabeek basoa ateratzeko asmoa duela eta orain zoladura konpontzea baino hobea dela itxarotea .

Eta bestetik , udalak egin behar duen aktuzioa zein izan behar duen argitzea egokia izango zela . Horretarako , udalak makinako lan ordu batzuek bere esku badituela eta makina zalearekin hitz egiteko geratu dira .

4.-LOPETEDI PARTZELAKO HORMA EGITEAREN AURREKONTUA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

Lopetedi eta Malkor kale a joateko bidean ,lehen Lopetedi baserriko baratzari eusteko orma bat egin zen . Horma hori jarraitzea beharrezkoa ikusi da, Lopetedi baratzean sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko .

Horretarako , Anduitz enpresari aurrekontuak eskatu zitzaizkion eta , horien berri jakin ostean , beste bi enpresei ere aurrekontuak eskatzea proposatu da.

Mahaikideek ERABAKI DUTE .

1.-Horma egiteko aukerak aztertu eta beste aurrekontuak ere eskatzea.

5.-OSASUN SAILEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIAREN BERRI EMAN ETA PROIEKTUA ONARTZEA .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2020eko ekainaren 1eko Euskal herriko Aldizkari Ofizialean , 2020eko maiatzaren 19eko Agindua argitara eman zen , eta bertan , osasunaren sustapenerako burutzen diren ekintzak , beti ere komunitateko partaidetza prozesuetan garatuak izan direnak laguntzeko deialdia egiten da .

Deialdi honetan oinarrituta , Baliarraingo Udalak ondorengo eskaera bideratu nahi du , horretarako txosten hau idazten duelarik :

TXOSTENA

Proiektuaren titulua : Baliarraingo adinekoen beharrak

Proiektuan inplikaturako komunitate partaidetza prozesua : Baliarraingo adinekoek elkartzeko ohitura dute , beraien artean dauden beharrak , herriko adinekoen egoera , norbanakoen egoera e.a aztertzen dituzte . Adinekoen artean egiten duten partaidetza , beraien artekoa da , eta adin segmentoren barruan gazteenak direnak dinamika sortzen dute , adin gehiago dutenenekin batera dinamizatu eta antolatzeko .

Proiektuen ardura teknikoa :Proiektuaren ardura udalarena da eta Udalak horretarako herriko gazte bati zerbitzua eskaintzeko eskaera bideratzen dio , eta hilean bi saioretan elkartzen dira .

Proiektuaren deskribapen teknikoa :

a)KPP sortzea eta eta dinamizazioa .-Baliarraingo adin taldekoen artean gazteenak direnak beharren arabera , udalari elkartzeko gunea antolatzea eskatzen diote , ikasturtean zehar , hau da urritik hasi eta maiatzaren amaiear arte .

b)Osasunerako aktiboen identifikazioa .-memoria lantzea (aspaldi eta oraingo gertakizunak) ariketa fisikoa suabea ,hiriguneari bira egitea , sormena , eskulanak e.a.

c) Komunitaterako interesa duten gaiak , beharrak , arazoak e.a. .- Baliarraingo udalerrian , adinekoek etxean bakarrik aurkitzen dira . Kasu batzuetan bakardadea handi dute eta hilean bi saioretan , bakardea saihesteko elkartzen dira . Elkartzen direnean honako behar hauei erantzuten diote :

.-Bakardadea saihestea



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

.-Eguneroko norberaren zalantza , kezka eta gertaerei garrantzia emanaz besteekin elkar trukatzea .

.-Sozializatzea.

.-Memoria egitea eta lantzea.

.-Ariketa elkarrekin egitea .

Udalak antolatzen duen ekintzetan gain , adinekoek bere ohiturak ere indartu dituzte , beraien kabuz elkarrekin geratzen dira egunean zehar hirigunean oinez bere bira egiteko .

d) Lehenesten diren eginkizunak .-

Bakardadea saihestea

Osasun mentala ahal den gehiena zaintzea

Ariketa fisiko bidez motrizitate fina indartzea

Eta gorputz oso astintzea Baliarrainei bira eginez

Osasuna sustatzeko jarduerak

a) Jardueraren Justifikazioa , helburuak eta faseak

Hilean bi saio egiten dituzte , eta saio hauek Udalak eskinita burutzen dira .

Eta garrantzizkoena da , beraien artean bere kabuz biltzen direnean ariketa egunero egiteko .

b) Parte hartzea

Ekitaldi hauetan parte hartzen dutenak hamabi lagun dira, eta gainera nahiko talde parekidea dela esan daiteke .

c)Koordinazioa

Udalak herriko gazte baten bidez dinamizatzen du eta kasuan kasu bakoitzak dituen beharren arabera ere egokitzen dira . Horretarako zerbitzua jasotzen duten herritarrek sendagileak aholkatutako ariketa eta lanak ere koordinatzaileari azaltzen zaizkio eta dinamizatzen dueneak bete aratzen ditu .

d) Publizitatea

Ikasturtea urritik ekaina bitarte izaten da , eta ikasturtearen haseran herrian deia eta bandoak zabaltzen dira , guztiek biltzeko . Kasu batzuetan



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

dinamizatzaileak ere adinekoek bere etxeetatik jaso izaten ditu , bere kabuz etorri ezin direnean .

e) Aurrekontua

1.-Zerbitzuaren kostua , bataz bestekoa 1.200 euro izaten da .

2.-Eta hiriguneari bira egiteko aurrekontua :

Erantsitako planoan ikusten den bezala , hiriguneko bira egiteko , partaidetza prozesuaren bidez honako eskabide hauek egin dira :

3.4.eta 5 puntuetan hiru banku jarri behar dira .

Biraren zoladuran , oinezko ibilbidea dela adierazten duen pertsonaren irudia margotzea.

Lan honen aurrekontua 2.400,00€

GUZTIRA3.600,00€

Mahaikidek ERABAKI DUTE :

1.-Proiektua onartzea eta eskaera bideratzea .

2.-Eta eskaera bideratzea , alkatea baimentzea .

6.-OSTATU ETA ELKARTEKO HONDAKIN ORGANIKOA TRATATZEKO TXERRIEN BERRI AZALTZEA.

Ostatu eta elkarteko hondakin organikoa tratatzeko , beste urteetan bezala , txerriak jartzea aurreikusia zegoen .

Txerrien ezaugarriak agertu dira eta , udalak nahi dituen ezaugarriek dituztenak orain ez daudenez, aurrerago ekartzeko geratu dira .

7.-COVID 19 DELA ETA UDALAK UTZITAKO GAZTE LOKALAREN ERABILERA ZUZENA EGITEKO ARAUAK AZTERTZEA , HALA BALEGOKIO .

Udalaren lokala , gazteek erabiltzen dutenean ere , neurriak hartu behar dituztela esan behar da



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

1. Distantziak errespetatze arren gehienez hiru gazte egon daitezke lokalaren barruan .
2. Eskuak maiz garbitzeko gel berezia lokalean jarri behar da , sarrera eta irteeran garbitzeko .
3. Gazte lokaleko elementuak ere , gazteenak direnak garbitzeko ardura beraiena dela gogoraraztea .

8.-GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Galtzaundi euskara taldearen 2020eko egitasmoa aurkeztu du , Koordinatzailea denak . 2020urteko egitasmoan agertzen den aurrekontua 175.800 eurotako da eta Galtzaundik proposatu du , Baliarraingo Udalak 560 eurotako ekarpena egitea . Ekarpene hau era honetara banatzen da :

Jardun orokorragatik135,00
Euskaraldia 2020gatik..... 425,00

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1.- 2020 urteko aurrekontuaren gain , 560 eurotako ekarpena Galtzaundiri egitea onartu .

9.-SAN JUAN SUAREN INGURUAN BETE BEHARREKO NEURRIAK AZTERTZEA.

Covid 19 dela eta honako dei hau festa batzordeari eta herritarrei helaraztea erabaki da:

Aurten, COVID-19aren eraginez sortutako egoera dela eta, San Joan bezperako suaren jaia ospatzeko neurri zorrotzak bete beharrean aurkitzen gara. Horregatik, jaia antolatzen duenari bete beharreko arauak ematea da helburu .

ARAUAK

- 1.Suaren jaiaren antolatzailerik gehienez 20 pertsonako mahaiak bere aulkiekin antolatuko dituzte . Mahaien artean gutxienez 1,5 metroetako distantzia jarriaz .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2. Bakoitzak bere janaria ekarriko du eta edaria antolatzaileek norberaren edalontzira zerbitzatu behar du .
3. Distantziak errespetatze arren mahaitik ezingo da altxatu .
4. Sua eserita ikusi beharko da .
5. Altxatzea erabakitzen duenak eta 1,5 metroko distantzia errespetatzen ez badu maskarilla jarri beharko du .
6. Eskuak maiz garbitzeko gel berezia bi puntuetan jarri behar da , eta udalak gel hau emango du .
7. Antolatutako jaia amaitzen denean , norberak bere neurriak hartu beharko ditu .
8. Adin txikikoen ardura guraso edo bere arduradunak izango du .

10.-GALDERAK ETA ESKAERAK

Bat.- Tolosaldeko mankomunitateak estrukturantea ematen duen jakitea nahi da. Informazio biltzeko geratu da.

Bi.- Batzordeen osaketa lanari ekin behar zaiola esaten da. Hirigintza komisioa eta ingurumena batzordeari hasera eman behar zaiola , energia, ura , zaborra e.a. gaietaz hitz egiteko .

Hiru.- Konpostagailuen inguruan hutsunea nabaritzen da , eta hitzaldia edo bideo bat erakutsi behar dela konpostagailuaren funtzionamendu zuzena irakasteko. Estrukturantea ere nola eskuratu jakin behar dela , eta azkenik , bakoitzaren egoera ikusi eta aholkularitza pertsonala ematea egokia ikusi da .

Lau.- Gure zirkua 2020 urerako aurreikusia bazegoen ere , 2021 urterako uztea proposatu dela jakitera eman da .

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman zuen alkateak 21:45etan .

Alkateak

Idazkariak